



AKTA
Udaleko Euskara Kontseilua
2021eko maiatzaren 25a

BATZARKIDEAK

Mikel Uriguena, presidentea (Herriaren Eskubidea)
Neskutz Rodriguez Ormazabal, Herriaren Eskubidearen ordezkaria
Malen Urkullu Arieta-Araunabena, EAJren ordezkaria
Jessica Ruiz, PSE-EE PSOEn ordezkaria
Maite Euba Areitioaurtena, Udal Euskaltegiko zuzendaria
Mertxe Mujika, Abarrak AEK-ko ordezkaria
Markel Sanchez Zelaia, Berbaroko kudeatzailea
Gotzon Gomez Barrenetxea, Gerediaga elkarteko ordezkaria
Aritz Maldonado, Anbotoko ordezkaria
Amets Menika Bernas, euskara trebatzailea
Fernan Ruiz Larringan, euskara dinamizatzailea

IDAZKARIA

Juan Antonio Atutxa Balentziaga, euskara teknikaria

EZIN ETORRI IZANA adierazi dute:

Ane Abanzabalegi Areitio, EH Bilduren ordezkaria
Aitzol Gaztanazatorre Gorritxategi

Tokia: Berbagunea (Udal Euskaltegia)

Hasiera ordua: 18:00

Amaiera ordua: 19:15



1. Aurreko batzarreko akta onartzea

Aho batez onartu dugu maiatzaren 4ko batzarreko akta.

2. Euskararen Udal Araudia aztertzea

Lehen azalpenak Mikelek eman ditu. Ondoren, Tonik jarraitu du aurreko batzarreko ekarpenei buruzko azalpenak ematen.

Ohar bi aipatu behar dira:

- 14. artikuluan ageri den “gutxienez” kendu eta egokiagoa den “behintzat” idatziko dugu (Maite)
- 21. artikulua: dagoen moduan utziko dugu, eta aztertzeko geratu da Markelek eta Aitzolek egindako ekarpena (Puntu honetan Markelek eta Aitzolek eskatu zuten zehatzago ezartzeko irizpide, kuota edo neurri progresiboak, ahal bada).

Oniritzia eman diogu ekarpenen dokumentuari eta aktari erantsiko diogu.

2.1. 27. artikulutik aurrerakoak aztertzea

Zalantzak eta eztabaida sortu duten artikulua:

29. artikulua: ezabatu egin da, bertan esaten dena 27.ean jasota dagoelako.

31. artikulua: ageri den “gutxienez” kendu eta “behintzat” idatziko dugu.

37. artikulua (orain 36.a): berridatzi egin da, ez baitzen ondo ulertzen (Mikel, Neskutz).

38. artikulua (orain 37.a): Markelek zalantza izan du eta artikulua azken esaldia, “Itzulpenik egin behar bada, Udalak egin beharko du”, zehaztu egin beharko zela esan du. Esaterako, Udalak zer baliabide ipiniko duen. Tonik erantzun du egokiagoa dela araudian dagoen moduan uztea. Gerora, udal barruko euskara plana baliatuz, bertan jaso daitezke udalak jarri ditzakeen baliabideak.

39. artikulua (orain 38.a): “Ahaleginak egingo dira kendu”, eta berridatzi egin da.

47. artikulua (orain 46.a): berridatzi egin da hobetu ulertzeko (Mikel, Gotzon).

50. artikulua (orain 49.a): Udalak deituriko oposaketetan, dena delako lanpostu batek hizkuntza-derrigortasun iraungia ezarria badu, oposaketako proba guztiak euskaraz egin beharko lituzkete hautagaiek. (Markel). Euskara gaitasuna dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta aitortzen zaio hautagaiari; beraz, legez, ezinezkoa da oposaketara aurkeztutako hautagaia azterketak euskara hutsean egitera derrigortzea, hautagaiak azterketak hizkuntza batean edo bestean egiteko eskubidea duelako. (Toni).

51. artikulua (orain 50.a): akatsak zuzendu ditugu.

Moldaketak zirriborroan: Maiatzaren 25eko batzarrean **horiz** zeuden hainbat artikulua ontzat eman ziren, horrexegatik, orain bidalitako zirriborroan kolorea kendu zaie. Batzar horretan egindako ekarpenak **urdinez** koloreztatu dira eta “Aldaketak araudian 2021-05-25” dokumentuan jaso eta bilduta daude.

Adostekoak	Batzarren maiztasuna; araudiak bi hilerik behin egitea zehazten du. Kontseiluan landuko ditugun gaiak eta dinamikak .
-------------------	--

Hurrengo batzarra: ekainaren 8an, 18:00etan, Berbagunean.

Eginkizuna: araudia aztertzen jarraitzea 51. artikulutik aurrera.